BORTZIRIETAKO EUSKARA MANKOMUNITATEA

948 634 125 / 680 650 650
euskara@bortziriak.eus
www.bortziriak.eus

## UDALEKUAK 2020
### Oinarriak eta arauak

**Covid-19ak sortutako osasun egoera dela-eta, 2020ko udalekuak egoera horretara egokituak izanen dira (ikusi 7. atala). Gaur-gaurkoz hauek dira arauak, baina osasun egoeraren arabera aldatu ahalko dira eta dokumentu hau eguneratuko da (azken aldaketak 2020/07/02).**

**1. Udalekuen helburua**

Udalekuen helburu nagusia da aisialdi giroan haurren artean euskararen erabilera sustatzea. Aurtengo egoera berezia aintzat hartuta, udalekuek helburu pedagogikoa ere izanen dute, parte hartuko duten haurrek Covid-19ari aurre egiteko prebentzio neurriak ezagutzeko eta praktikara eramateko aukera izanen baitute.

**2. Datak, ordutegiak eta elkartzeko tokiak**

Arantza, Bera, Etxalar eta Igantzi:

Uztailaren 13tik abuztuaren 7ra (4 aste; izen emateak asteka egiten ahal dira), 10:00-13:00.

- Arantza: Arantzako Herri Eskola
- Bera: Ricardo Baroja I.P.
- Etxalar: Landagain I.P.
- Igantzi: Igantziko I.P.

Lesaka:

Uztailaren 13tik abuztuaren 28ra (7 aste; izen emateak asteka egiten ahal dira), 09:00-13:00
Irain I.P.

Herri batean talde bat sortzeko gutienez 9 haur beharko dira.

**3. Nork hartzen ahal du parte?**

- 3-12 urte bitarteko (2016-2008 urteetan jaiotako) haurrek.
- Bortzirietako udalerriren batean erroldatuek edota bertako ikastetxeetako ikasleek.
- Udalekuak euskaraz direnez, parte hartzaileek D edo B ereduan ikasi behar dute.
- Behar bereziak dituzten haurrentzako 3 plaza gordeko dira. Haur horiek begirale bana behar dutela erabakitzeko orduan osasun eta hezkuntza arloko profesionalek aurkeztutako txostenak hartuko dira aintzat. Adinari dagokionez, 15 urte bitartekoek parte hartzen ahal dute (2005-2016 bitartean jaiotakoek). Izen emana ahala beteko dira plazak.

## COLONIAS DE VERANO 2020
### Bases y normas

**Debido al estado de salud generado por el Covid-19, las colonias 2020 serán adaptadas a esta situación (ver apdo 7). A día de hoy estas son las normas, pero podrán variar en función del estado de salud y este documento será actualizado (últimos cambios 02/07/2020).**

**1. Objetivo de las colonias**

El objetivo principal de las colonias es fomentar el uso del euskera entre las niñas y niñas en un ambiente de ocio. Teniendo en cuenta la especial situación de este año, las colonias también tendrán un objetivo pedagógico, ya que las y los participantes podrán conocer y practicar las medidas preventivas para hacer frente al Covid-19.

**2. Fechas, horarios y lugares de encuentro**

Arantza, Bera, Etxalar e Igantzi:

Del 13 de julio al 7 de agosto (4 semanas; se inscribirán por semanas), 10:00-13:00.

- Arantza: Arantzako Herri Eskola
- Bera: C.P. Ricardo Baroja
- Etxalar: C.P. Landagain
- Igantzi: C.P. Igantzi

Lesaka:

Del 13 de julio al 28 de agosto (7 semanas; se inscribirán por semanas), 09:00-13:00
C.P. Irain.

Hará falta un mínimo de 9 participantes para que se forme grupo en cada localidad.

**3. ¿Quién puede participar?**

- Las niñas y niños de 3-12 años (año nacimiento entre 2016-2008).
- Las niñas y niños empadronadas en Bortziriak o matriculadas en los centros de enseñanza de Bortziriak.
- Los campamentos serán en euskera, por lo que las participantes deberán estudiar en los modelos D o B.
- Se reservarán 3 plazas para niñas/os con necesidades especiales. Se determinará si necesitan un monitor o monitora teniendo en cuenta los informes presentados por profesionales sanitarios y educativos. En cuanto a la edad, pueden participar niñas/os de hasta 15 años (nacidas entre 2005-2016). Las plazas se cubrirán según se inscriban.

948 634 125 / 680 650 650
euskara@bortziriak.eus
www.bortziriak.eus

**4. Izen ematea**

- Izen ematea online eginen da edota www.bortziriak.eus webgunetik.
- Izen emateko epea zabalik egonen da ekainaren 19tik 28ra, biak barne.
- Izen ematean asteak hautatuko dira.
- Udalekuetan onartuak izan diren haurren asistentzia kontrolatuko da. Astebetez udalekuetara justifikatu gabe joaten ez diren haurrek plaza galduko dute eta erreserban daudenei parte hartzeko aukera emanen zaie. Plaza galtzen duten familiek ez dute dirua berreskuratzeko aukerarik izanen.
- Plaza kopurua mugatua da. Izen eman ahala onartuko dira parte hartzaileak, eskainitako plazak bukatu arte.
- Izen ematea ez da ontzat emanen haurraren osasun txartela ez badago mankomunitatearen esku ekainaren 28a baino lehen. Matrikula ordaintzeko epea uztailaren 3ra artekoa izanen da; egun horretarako ordainketa ez badago egina, izen emateak balioa galduko du.

**4. Inscripción**

- La inscripción se realizará online y a través de la web www.bortziriak.eus.
- El plazo de inscripción será desde el 19 al 28 de junio, ambos inclusive.
- En la inscripción se seleccionarán las semanas.
- Se controlará la asistencia de las niñas y niños durante las colonias. Quienes no acudan durante una semana sin justificar perderán su plaza y se les dará la posibilidad de participar a quienes estén en reserva. Las familias que pierdan su plaza no podrán recuperar el dinero.
- El número de plazas está limitado. Las inscripciones serán admitidas hasta que las plazas se agoten.
- La inscripción no se dará por válida si la tarjeta sanitaria de la niña/del niño no está a disposición de la mancomunidad antes del 28 de junio. El plazo para el pago de la matrícula será hasta el 3 de julio; si para ese día no se ha realizado el pago, la inscripción perderá validez.

**5. Matrikulen prezioak (ordua 1,5 euro)**

**5. Precios de las matrículas (1,5 euro/hora)**

**Arantza-Bera-Etxalar-Igantzi**

| | Aste 1/ *semana* | 2 aste / *semanas* | 3 aste / *semanas* | 4 aste / *semanas* |
|---|---|---|---|---|
| Ume 1 *niña/niño* | 22,50 € | 45,00 € | 67,50 € | 90,00 € |
| 2 anai-arreba/*niñas-niños* (-%15) | 38,25 € | 76,50 € | 114,75 € | 153,00 € |
| 3+ anai-arreba / *niñas-niños* (-%30) | 47,25 € | 94,50 € | 141,75 € | 189,00 € |

**Lesaka**

| | Aste 1/ *semana* | 2 aste / *semanas* | 3 aste / *semanas* | 4 aste / *semanas* | 5 aste / *semanas* | 6 aste / *semanas* | 7 aste / *semanas* |
|---|---|---|---|---|---|---|---|
| Ume 1 *niña/niño* | 30 € | 60 € | 90 € | 120 € | 150 € | 180 € | 210 € |
| 2 anai-arreba/*niñas-niños* (-%15) | 51 € | 102 € | 153 € | 204 € | 255 € | 306 € | 357 € |
| 3+ anai-arreba / *niñas-niños* (-%30) | 63 € | 126 € | 189 € | 252 € | 315 € | 378 € | 441€ |

Behar ekonomikoak dituzten familiek prezio horien gainean % 50eko deskontua izanen dute. Horretarako izen eman ondotik gizarte zerbitzuekin harremanetan jarri behar dute, bertan balorazioa egin dezaten (948 635 036).

Las familias con dificultades económicas tendrán un 50 % de descuento sobre estos precios. Para ello, una vez realizada la inscripción, se pondrán en contacto con los servicios sociales (948635036).

948 634 125 / 680 650 650
euskara@bortziriak.eus
www.bortziriak.eus

**6. Udalekuen antolaketa eta segimendua**

Udalekuak Bortzirietako Euskara Mankomunitateak antolatu ditu. Mankomunitateak Dindaia Fundazioa kontratatu du udalekuen prestaketa orokorraz, segimenduaz eta langileen kontratazioaz ardura dadin.

**7. Covid-19 osasun eta segurtasun neurriak**

Dokumentu hau argitaratu den momentuan indarrean dauden neurriak dira hauek; baliteke osasun egoeraren arabera neurri hauek aldatzea:

1. Udalekuak hasi aitzinetik begirale guziek jasoko dute Covid-19aren gaineko formakuntza (neurri higieneko-sanitarioak, eta alde emozionala nahiz pedagogikoa).
2. Udalekuetarako sarrera eta irteera mailakatua izanen da. Begiraleak bertan izanen dira eta azalduko dute nola eginen den.
3. Sarreran haurrek eskuak garbituko dituzte gel hidroalkoholikoarekin, eta taldeka geletara joanen dira.
4. Taldeak 10 lagunez osatuko dira (gehienez 9 haur eta begiralea). Taldeak batzen ahal dira, baina gehienez ere 15 partaide elkartuz.
5. Aire zabalean eginen dira ahalik eta ekintza gehien. Halere, hori posible ez denean espazio itxi egokiak prest izanen dira.
6. Ekintzak pertsonen artean gutienez 1,5 m-ko distantzia utziz programatuko dira. Hori ezinezkoa den kasuetan maskara erabiliko dute, bakarrik 6 urtetik goitiko haurrek eta salbuespen hauek kontuan hartuta:
   a. Arnasteko zailtasunak edo behar bezala justifikatutako osasun arrazoiengatik maskararen erabilera kontraindikatuta duten pertsonak, edo desgaitasun edo mendekotasun egoeragatik maskararen erabilera bideraezina egiten duten jokabide aldaketak dituztenak.
   b. Jardueren izaeragatik beragatik maskara erabiltzea bateraezina denean.
   c. Ezinbertzeko kausa edo premia egoera.
7. 6 urtetik goitiko haur guziek etxetik ekarri beharko dute maskara, gutieneko tartea gorde ezin denerako.
8. Familiek ardura handiz jokatu behar dute. Haurrak (edo familiakoek) sintomak baditu edo gaixotu bada, ahalik eta lasterren emanen diote horren berri begiraleari, osasun protokoloak

**6. Organización y seguimiento de las colonias**

Las colonias las organiza la Mancomunidad de Euskera de Bortziriak. Dindaia Fundazioa (mediante contrato con la mancomunidad) es la empresa que se ocupa de la programación y el seguimiento de las colonias, así como de la contratación del personal.

**7. Medidas de salud y seguridad Covid-19**

Estas son las medidas vigentes en el momento de la publicación de este documento; es probable que dichas medidas varíen dependiendo de la situación:

1. Antes de que comiencen las colonias, todas las monitoras/es recibirán formación específica sobre el Covid-19 (medidas higiénico-sanitarias y aspectos emocionales y pedagógicos).
2. La entrada y salida serán escalonadas. Las monitoras y monitores explicarán cómo se llevara a cabo.
3. En la entrada las niñas y niños se lavarán las manos con gel hidroalcohólico y se dirigirán en grupo a las aulas.
4. Los grupos estarán formados por 10 personas (máx. 9 niñas/os y 1 monitor/a). Se podrán juntar distintos grupos, con un máximo de 15 participantes.
5. Se realizarán al aire libre el máximo de actividades posible. Se adecuarán los espacios cerrados necesarios para cuando no sea posible.
6. Las actividades se organizarán de manera que se mantenga una distancia interpersonal de al menos 1,5 m. Cuando eso no se pueda garantizar, se usarán mascarillas en mayores de 6 años, exceptuando estos casos:
   a. Las personas con dificultades respiratorias que tengan contraindicado el uso de la mascarilla por motivos de salud debidamente justificados, o con cambios de conducta que hagan inviable su uso por discapacidad o situación de dependencia.
   b. Durante el desarrollo de actividades en las que, por la propia naturaleza de estas, resulte incompatible su uso.
   c. Por causa de fuerza mayor o necesidad.
7. Cada niña/niño mayor de 6 años traerá su mascarilla para usarla cuando no se pueda mantener la distancia.
8. Las familias deberán extremar las precauciones. Si la niña/niño (o cualquier familiar) enferma o presenta síntomas, se lo comunicarán cuanto

948 634 125 / 680 650 650
euskara@bortziriak.eus
www.bortziriak.eus

lehenbailehen martxan jarri ahal izan daitezen.

9. Haurren bat edo begiraleren bat Covid-19arekin eritu edo horren susmoa izanez gero, osasun protokoloak abiatuko dira. Gerta liteke udalekua bertan behera utzi beharra; kasu horretan kuotaren zati proportzionala itzuliko da.
10. Bertzelako arrazoiren batengatik haurrak ez badu udalekuetara joan behar, begiraleari jakinarazi behar diote.
11. Ezin dira jostailuak eraman. Udalekuan denek erabiliko dituzten objektuak erabili aitzinetik eta ondotik desinfektatuko dira.
12. Haur bakoitzak bere hamaiketakoa eta botilatxoa eramanen ditu.
13. Udalekuak irauten duen bitartean partaideren batek sintomak agertzen baditu begiraleak bakarkako gela batera eramanen du, eta maskara jarriko dio. Gainera, familiari abisatuko dio, baita lehen arretako zentroari ere (Lesaka eta Berako osasun zentroei).
14. Programazioak, jokoak, irteerak eta abar unean uneko osasun egoerara egokituko dira.
15. Mankomunitateak eta Dindaia Fundazioak eskura dituzten protokoloak eta neurri guziak ardura handiz jarraituta ere Covid-19 kasuren bat agertuz gero, familiek ezin izanen diete inolako kalte ordainik eskatu.
16. Izen ematea egiterakoan honako baldintza hauek onartu behar dira (izen emateko formularioan daude):
    a. Osasun agintaritzak une bakoitzean proposatutako prebentzio eta higiene neurriak onartzea.
    b. Covid-19aren aurkako kalteberatasun berezia duten pertsonekin ez bizitzearen eta ez parte hartzearen erantzukizunpeko adierazpena.
    c. Covid-19arekin bateragarriak diren sintomak ez izatearen eta balizko edo baieztatutako kasu batekin kontaktu esturik izan ez izanaren adierazpena, eta pertsona kaltebera batentzat izan ditzakeen arriskuen berri izatearena.
    d. Osasun egoera egunero berrikusteko konpromisoa.
    e. Jardueran parte hartzeko baimena Covid-19ak dakartzan arriskuen eta neurrien berri izan ondoren.

antes a la monitora/al monitor, para así poder poner en marcha los protocolos establecidos.

9. En caso de enfermedad o sospecha de síntomas de Covid-19 en alguna niña/o niño o monitora/monitor, se seguirán los protocolos sanitarios. Puede que haya que suspender la colonia; en ese caso se devolverá la parte proporcional de la cuota.
10. Si por cualquier otro motivo la niña o niño no va a acudir algún día a las colonias, la familia informará a la monitora o monitor correspondiente.
11. No se pueden llevar juguetes de ningún tipo. Los objetos que se utilicen en común serán desinfectados antes y después de su uso.
12. Cada niña o niño llevará su almuerzo y botellín.
13. Si una/un participante inicia síntomas durante la actividad, acudirá a una sala de uso individual junto con la monitora/monitor, que le facilitará una mascarilla y avisará a la familia y al centro de atención primaria (centros de salud de Lesaka y Bera).
14. Las programaciones, juegos, salidas y demás se adaptarán a la situación sanitaria del momento.
15. A pesar del cumplimiento de las normas por parte de la mancomunidad y de Dindaia Fundazioa, si se diera algún caso de Covid-19, las familias no podrán reclamar ninguna indemnización a dichas entidades.
16. Al realizar la inscripción se deberán aceptar estas condiciones (se incluyen en el formulario):
    a. Aceptación de las medidas de prevención e higiene propuestas en cada momento por la autoridad sanitaria.
    b. Declaración responsable de no formar parte ni de convivir con personas con especial vulnerabilidad al Covid-19.
    c. Declaración de no padecer síntomas compatibles con el Covid-19 y de no haber tenido contacto estrecho con un caso probable o confirmado, y de conocer los riesgos que pueda suponer para una persona vulnerable.
    d. Compromiso de revisión diaria del estado de salud.
    e. Consentimiento para participar en las colonias tras haber sido informado de las medidas y de los riesgos que ello implica en el contexto del Covid-19.

948 634 125 / 680 650 650
euskara@bortziriak.eus
www.bortziriak.eus

**8. Datu pertsonalen babesa**

Eskatzaileen datuak babesteari buruzko abenduaren 5eko 3/2018 Lege Organikoan oinarritua. Erabileraren arduraduna: Bortzirietako Euskara Mankomunitatea. Xedea: Udalekuetan izena ematea. Legitimazioa: Izen ematea gauzatzea. Hartzaileak: Bortzirietako Euskara Mankomunitateak udalekuak antolatzeko sortu duen fitxategian gordeko dira. Mankomunitateak Dindaia Fundazioaren esku utziko ditu antolaketarako beharrezko dituen datuak. Dindaia Fundazioak, udalekuak bukatutakoan datu horiek deuseztatu eginen ditu, edo mankomunitateari itzuliko dizkio. Eskubideak: interesatuak bere datuak eskura, zuzen eta ezaba ditzake, bai eta bertze eskubide batzuk egikaritu eta datuen babesari buruzko informazio gehigarria ikusi ere.

**8. Protección de datos personales**

Los datos de las personas interesadas se protegerán en base a la Ley Orgánica 3/2018, de 5 de diciembre. Responsable del tratamiento: Bortzirietako Euskara Mankomunitatea. Finalidad: Inscripción en las colonias. Legitimación: Realizar la inscripción. Destinatarios: Los datos se conservarán en el fichero creado para la gestión de los campamentos. La mancomunidad facilitará los datos necesarios para la organización a la Fundación Dindaia. Una vez finalizado el campamento, la Fundación Dindaia eliminará o devolverá a la mancomunidad dichos datos. Derechos: la persona interesada puede disponer, rectificar y borrar sus datos, ejercer otros derechos y acceder a información adicional sobre protección de datos.

Bortziriak, 2020-07-02